

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Euskarazko zinema ikasleen artean zabaltzen jarraitzeko hitzarmena berri du Hezkuntzak

Tinko Euskara elkarteak 4.500 ikasle eraman ditu aurten zinemara euskarazko filmak ikustera eta halaxe egingen du heldu den kurtsoan ere

Astelehena, 2019.eko otsailak 25

Roberto Perez Elortza Hezkuntzako Zuzendari Nagusiak eta Marian Galarraga Saralegi Tinko Euskara Elkarteak lehendakariak hitzarmena berri dute gaur euskarazko zinema zabaltzeko Nafarroako ikastetxeetan. Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako A, B eta D ereduak 4.500 ikasle bakoitzeko, euskaraz sortutako edo euskarara itzultutako filmak ezagutuko



Roberto Perez Elortza eta Marian Galarraga Saralegi hitzarmena sinatu duten uneetako batean.

dituzte eta, ondoren, aukera izanen dute pedagogikoki lantzeko ikasgelan. Aukera hori izan da aurten, lehenengo aldiz, eta hitzarmena berriuta 2019an ere aukera bera izanen dute Nafarroako ikasleek.

Ikus-entzunezko sorkuntzak gero eta garrantzi handiagoa du gaur egungo gizartean, eta frogatuta dago haurtzaroen eta gaztaroen kontsumoak daukan eragina. Kultur kontsumoa irudizkoa eta soinuakoa da gero eta gehiago, eta horregatik garrantzitsua da kontsumo praktika egokiak bultzatzea, gazteak giza balioekiko sentiberak izan daitezen, eta ikus-entzunezko ekoizpenaren ekarpenaz jabe daitezen.

Tinko Euskara Elkarteak 1995etik ari da zinema eskaintza zabala egiten ikastetxeetan, *Euskara Zinema Aretoetara* egitasmoaren bitartez. Elkarteak arrakasta handiko filmak aukeratzen ditu, 3 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzat. Izenburu horien banaketa eskubideak erosi eta euskarara itzultzen ditu. Azkenik, hedapen itunen bitartez, zinema aretoetan eskaintzen ditu euskarazko filmak horiek. Zintak aukeratzeko unean honako irizpideek agintzen dute: elkartasuna, familia, animaliekiko eta ingurumenarekiko errespetua, eta eskola jazarpenarekiko arbuioa. Emanaldiaz gain, Tinko Euskara Elkarteak fitxa pedagogikoak sortzen ditu, filmetan agertzen diren gaiak, ondoren, ikasgelan landu daitezen. Iaz 8 izenburu jarri zituzten zentroen euskarazko *karteldegia* berezi honetan, eta beste hainbat izanen dituzte heldu den urtean.

Hitzarmen honen bidez, Hezkuntza Departamentuak bigarrenez,

30.000 euroko diru-laguntza eman dio *Euskara Zinema Aretotara* programari ikasleen artean euskarazko ikus-entzunezkoen kontsumoa eta ezagutza zabaltzeko. Eskaintzen diren filmen laburpenak, trailerrak, eta gehiago, tinkoeuskara.eus atarian ikus daitezke.